

EUSKALTZALEAREN HIRU ESKULIBURU

Hirurotarik bi oso aspaldikoak dira eta hirugarrena labetik harakoa, berri-berria: Zamarriparen MANUAL DEL VASCOFILO, S. Altuberen ERDERISMOS eta Gotzon Garateren ERDARAKADAK.

Ez, ez dira ikerketa sakonez eta teoria butsez hornituriko liburu astun aspergarriak. Esku artekoak, erabiliaren erabiliz goxoki koipaztuak eta belztuak izan ohi diren horietarikoak direla esango nuke. Benetan erabilgarriak.

Euskaltzale bakoitzak bere joerak izan ohi ditu, eta jakina, oheurrekoan, burkopean edo gaucko ametsen lagun izan ohi dituen liburuak ere bai. Alabaina horrelakoak ipuin, olerki eta elaberriak izaten dira eskuarki. Literaturazkoak. Beste liburu mota haiek ere eskertsu, esku-eskura eta hurbil izango ditu euskaltzaleak: hiztegiak (Azkue eta Lhande-renak eta oraintsuragoak), Txillardegiren lanak. Honen EUSKARA BATUA ZERTAN DEN eta EUSKAL GRAMATIKA usu erabiliaren marka esanguratsuaz ditut nik nerek.

Baina goazen aipatutako liburuotara:

P. Zamarripa Uruga, tamalez, ez da hain ezaguna; ezta euskal gaietan aritzen direnen artean ere. Bizkaikoen artean, agian bai, bizkaierara mugatu bait zuen hark ia bere ekintza osoa. Biz-

kaiko Txorierriko euskararen kutsua dario haren lumari, irakur-
gai arinez osotutako liburuotan: ZAPARRADAK-ETA, KILI-
KILI, FIRI-FIRI. Liburutxo hauek berreragile edo, izan nahirik
zetozen; baina egileak ez du bere asmo hori guztiz lortzen. Egia
esan, garaikide zuen Kirikifio mainaritarrekin parekatzen dute
eta horrek ez dio batere onik egin Zamarripari. Motz geratzen
da haren ondoan. Bataren eta bestearen lanak (ipuinak eta) ira-
kurritz gero, Zamarripak hurrik ere ez diola ematen aitortu be-
har. Ipuinak, jazorikoak, barregarrikeriak, eguneroko gauzatxoak
ditu kontagai. Baina bai arinegiak, gatz eta piperrik gabeak, mo-
telegiak dira. Horregatik edo, baztertuxea dago euskaltzaleen ar-
tean. Mikel Zarate zenak Zamarripaz galdetu eta honako cran-
tzun hau jaso zuen: «Zamarripa...? «Firi-Firi», «Kili-kili»... txibizke-
riak, «gauzatxuak», dira Zamarriparen idazlanik gehienak; txirri-
mirriak». Garaikideak eta pixka bat geroagokoek hartaz zuten
eritzia garbi adierazten da erantzun horretan. Hala ere, euskara-
ren erabileran benetako maisu dugu Zamarripa eta hori, MA-
NUAL DEL VASCOFILO liburuan eta euskaraz idatzi zituen
beste haitetan ere garbi asko nabari da. Hona zer dioskun Mikel
Zarate berak «Bizkaiko Euskal Idazleak» liburuan: «Manual del
Vascófilo». Bana-banako liburu eder irakurgarria; berebizikoa,
euskeraren joskera, esakerak, erderakadak, ortografia eta abar
ezagutzeko. Barrero al bait ariñen, argitaratu bearreko liburuak.
Nik, liburu zahar, eskuragaitzak saltzen zituen dendari bati erosi
nion. Orain, zorionez, birrargitaraturik ikusi dut Durangoko az-
ken azokan. Ez da liburu mardula, baina bai erabilgarria, bizkaie-
ra ongi ikasteko ia eskutik utzi ezina. Izenburupean letra txikia-
goz «Libro de modismos, onomatopeyas, elipsis, uso distinto de
la S y de la Z y otras cosas que conviene saber para hablar y es-
cribir bien en vascuence vizcaino» jartzen du eta horixe da labur
bilduz liburuaren muina.

Sebero Altuberen ERDERISMOS liburuak ez du aipamen
beharrik, guztiz ezaguna da eta Oraindik ere haren eragina
ezinbestekoa da joskera txukunez idatzi nahi duten idazleen ar-
tean. Altuberen jaioterrian -Arrasaten- 1979. urteko Abenduan,
haren jaiotzaren mendeurrenean, Euskaltzaindiak bere IX. bil-

tzarra ospatu zuen, bide batez, Arrasateko seme eta Gernikako semeorde argia biziki omenduz. Biltzar horretan, Altuberren gramatika-arauak birgogoratu, jostera ikertu zen eta galdegaiaren auzia bereziki (Euskera XXV (2. aldia) 1980-2. Bilbo).

Hor ikus daitekeenez, ERIDERISMOS liburua ez da doidoi gure egunetako beharizantara egokitzen dena. Pixka bat urak hartu duen soinekoa bezala dela dirudi. Zenbait gauzatan osotu beharra eta beste zenbaitetan berraztertu beharra luke. Horretaraxe datoz, etorri ere, biltzar honetako lanak. Hala ere, funtsean, haren ideiek tinko diraute eta gidaliburu aparta zaigu oraindik. (ikus A. Irigoien, L. Akesolo eta A. Arejitaren idazlanak).

Hizkuntza nagusien erasoak, ordea, txikien esparrua janz-janez dihardu. Lan sor eta galgarriari kiten diola ezin uka. Erdararen afontupean dugu aspaldidanik euskara eta erdal haize muin-muineraino sartu ohi zaio. Altuberren garaian higadura hau, erdal afontupean izanaren ondorioa, ez zen, agian, hainbestekoa izango. Gaur egun, ordea, erdararen enbata eta oldepean gaude eta haren erasoak euskararen ingurugiro osoa kutsatu ohi du.

1967-68.az gero, zenbait gazte prestuk euskararekin edozein plazataragertzeko engararik ez zuten izan. Ordurarte erdararenak ziren gai asko euskaraz irakurri eta jaso ahal izan genituen. Eskertzekoa da ausardia hau, saiotxoak eginez, erori eta jaituen. Ikasten bait da oinez. Baina... betikoa: arriskua! Ezkutuan, gordeta, beti etxezulo izanez gero, hainbesteko arriskurik ez. Ez lan eta ez jan! Lizardik fintasun harrigarritz adierazi zuen bere gogo:

«Baña nik izkuntza larrekoa,
nai aumat ere noranaikoa;
Jakite-egoek igoa;
soña zaar, berri gogoa;
azal orizta, muin betirakoa».

Arestik, osterā, euskara kutsatua, hiritarra, kale-kalekoa,

eguneroko eta arrunta aldarrikatu zuen.

Ikastolak, AEK, euskalduntze hitzaldiak, euskarazko kantaldiak, idazle berrien bolada (aldizkari eta liburu: ipuin, olerki, saio, claberrri...) eta azken urteotan euskal irrati eta telebistaren aukera ere hortxe dugu. Euskal egunkaririk ez ordea..!

Ekintza guztiotan arituz zikintzea ezinbestekoa da. Astelehenean praka garbiekin eskolara doan haurra ez pentsa, gero, arratsean garbi-garbi itzuliko denik. Dabilenari gertatzen zaio hori, bizi denari; eta guk, dotore jantzirik hilik egotea baino zapail eta arlote bizirik irautea nahiago.

Dena dela, batzutan nabarmenki eta bestetan ezarian- ezarian, euskalgaiztoz eta erdarakadaz zipristindua dakusgu geure euskara. Prentsa, irratia, euskal telebista etab. ditugu horren lekuko. Zer egin? Medio horietan lan egiteari utzi? Ez horixe! Oraindik gogotsuago lan egin, baina geure buruaren defentsak bilatuz zentzumenak zoli izan, euskal sena zorrotz. Oraingo erdal zorabioak lozorroan harrapa ez gaitzan tresna ezin hobea dugu, zorionez Gotzon Garateren ERDARAKADAK. Komunikabideetan, irakaskuntzan, euskararekin zerikusia duen edozein langintzatan diharduen edonork nahitaez eskuratu eta erabili beharreko liburu bikaina.

Egileak garbi adierazten du hitzaurrean zer den liburua eta zertara datorren: «Egungo egunean euskarak bi alderdi txar ditu. Bata: erdaraz pentsatzen dugula. Bestea: dakigun euskara, ona bada ere, oso murrizta dela. Gehienetan geure herri inguruko euskara bakarrik dakigu.

Mugaz bestaldekoek ez dakite alderdi honetako aberastasunen berririk. Halaber, honuzkaldeko mугen barruan bizi garenoi hango euskara joria, ikastea merezi ez duen bitxikeria iruditzen zaigu.

Beste aldetik ere larri ikusten dugu euskara. Euskaraz ongi dakitenek, baserritarrek, ez dakite euskaraz idazten. Euskaraz idazten dutenek, berriz, maiz ez dakite ongi euskaraz. Idazten di-

ren liburuetan zenbat eta zenbat huts».

Aurreraxeago, erdarazko hitzak hautatzerakoan ere hego eta iparraldekoek jokaera guztiz ezberdinak ditugula salatzen du, guk gaztelaniara joz eta haiek frantzesera. Altxor handia gordetzen da, zazpi herrialdeetako baserrietan batez ere, baina zatikatu, murriztua, osotu gabea aurkitzen da, eskualde bakoitzean bere gisara hitz eginez, hots, auzokoenik jakin gabe edo eta aintzat artu gabe. Bitasun hau, Hego-Iparraldekoen artean nabarmentzen da batez ere, baina bai besteetan ere. Bestaldetik euskara ongi jakin bai, baina idazten ez dakitenen eta ongi jakin gabe idazten dutenen arteko kontraesanak ageri-agerian jartzen dizkigu. Murrizketa, eten eta hutsune hauei konponbidea ezartzea edo eta horretan laguntzea litzateke liburu honen xedea. Han eta hemen sakabanaturik dauden altxorrak bildu eta euskalgaitoz esaten direnen ondo-ondoan ezarri, euskaldunak zuzen mintzatu nahiz idazteko aukera izan dezan.

Liburuari gainbegiratu bat eginez, zer esan daiteke: baserriko hizkera hautatzen dela eredutzat. Baserriko euskararen errejistro fin horrek, hizkuntzaren erabilera guztietarako balioko duen ala ez, hortxe kontuak! Irakaskuntzarako, zientzietarako, komunikabideetarako eredu egokia ote da? Bat-batean eta gehiagoko gogoeta barik, ezerz esan daiteke. Hala ere aire garbia, berezkotasunaren grazia, jatortasuna edozein sailtako euskararen txertatzeko gai izango dela ziurtzat jotzen dut. Dagoen-dagoenean denerakoa ez bada ere, denerako lagungarri aproposa bai.

Alabaina euskara mende duenak bakarrik atera ahal izango dio liburu honi bere etekin betea, ez bestek. Ikasi-berri, obuen edo eta albainutan dutenak, erdi galdurik ibil daitezke bildutako materiale handi honen aurrean, batzuen eta besteen arteko bereizketak, esan nahiak jaso ezinik. Apurka-apurka eta kontuz barneratu beharko dute oihan aberats honetan.

Aztergaitzat lerro-buruan ezartzen dena gaizki dagoenik ere inon ez da esaten. Dena dela, ERDARAKADAK izenburu-

pen letra beltzez datorrena hatakotzat jo behar besterik ezean. Euskaldun zaharrak, egunero euskaraz ari denak, ehiza-zakurrak bezala, usaindu egiten du edo eta euskal sena deritzan hori du, seigarren zentzumenen bat edo, zer den zuzen eta zer ez antzemateko.

«Bestalde, esaldi bat gaizki edo ongi dagoen esatea ez da erraz Gaizkiaren edo zuzenaren mugak ezartzea ezinezkoa da.

Zorrotz hartuz gero -hizkuntzalariek horrela diote- geure artean darabiltzagun esaldiak ulergarri badira, ez dago gaizki direnik esaterikan. Gehienez hauxe esan genezake: erdararen antza ematen zaiela, hitzez hitz erderatik itzuliak direla edo eta erdal usaina dutela». (Hitzaurrea XIII. orr.).

Hala ere hori benetan horrela ote da? Darabiltzagun esaldiak euskara beraren baitarik, inongo erdararen laguntzarik gabe, ulergarri badira, tira! Baina zenbait esaldi erdal itzulpen bidez zaizkigu ulergarri. Eta bestela ere zer? «Kalean ikusi dizut zuri» euskaldun hutsarentzat ulergarri bai bada, baina hori erdarakada nabarmena eta akats borobila denik ez al dago esaterik? Gaizkia eta zuzena (argi eta garbi hala direnean behintzat) zehatz-mehatz bereiztea pedagogiaren mesedetan litzateke.

Adibideak

Ez dut hautaketa zorrotzik egin, baina huts edo bete, ia liburua ireki ahala begien bistan gertatu zaizkidan esaldi batzu ezarriko ditut hemen, adibidetzat:

ALA. Galduz doala dio «edo»ren mesedetan. Beheraxeago bereizketa gomendatzen du: 1 Miren *ala* Maite. 2 Miren *edo* Maite. 3 Miren *nahiz* Maite. 4 Miren *eta* Maite. 5 *Bai* Miren *bai* Maite.

Hala ere ez du adierazten nola bereizten diren...

BAKARRIK. Bereiz: 1 kafe hutsa ala esnearekin. 2 kafea bakarrik ala koñak ere bai. 3 kafea bakarrik hartuko duzu ala la-

gunekin? (Ulergarriago: kafea bakarrik ala lagunekin hartuko duzu?).

Honen sinonimotzat, ñabardura txikiz, erruz entzun nahiz irakur daitekeen «soilik» ez dator liburu honetan eta berenberegi dio «soilik» barik «soilki» dela adberbioa: «Soilki bizi da» = bakarrik bizi da.

Egun *BAKOITZEAN* jatorrago zen. Erdarakada honen ondoan baserrietan jasotako esaldi jatorrak jartzen dizkigu: «egunean baino egunean jatorrago zan», «egunetik egunera okerrago», «urtean urtean jatorrago»...

EGOISTA hutsa da. Gramatikaren arabera gaizki dagoenik ezin esan, baina erdal hitz horren beharrik ez dute baserritarrek esaldia txukunago moldatzeko: «bere burua besterik ez du horrek», «horrek bere burua bakarrik du», «hartu eskua bakarrik du horrek»...

Mendici *ELURRA* joan zaic. «Mendiak lurmendi egin dira», «lurmentzen ari du», «elurrak asko urtu dira», «elurra mehetu egin da», «karroia gesaldu da»... «Lurmendu» hitzak «lur bihurtu» ere adierazten duela uste dut: «Ez egin jaramonic munduco agur, abegui zoro, ta ondasun gueugaz batera *lurmendu*, ta amaituco diriane!» (J.A. Mogel: Cristaubaren icasbidea edo Doctrina Cristiania. 111. orr. 18. atalean).

KO. -ko eta -ren deklinazio atzizkien bereizketa ezin argiago azaldurik dator.

TENIS. Hitz hau lerro-buruan dela, erdarakada bat baino gehiago datoz. Nik honako bi hauek hautatu ditut: «bi setetan berdindu eta *berriketa*, egin beharko dute». Honela dator zuzendurik: «beste partida bat jokatu beharko dute» etab.

Sakeak ez du *BALIO*. Gramatikaren arabera gaizki dagoenik ezin esan, baina erdal kutsukoa da. Hona zuzendurik: «sakea ez da ona izan», «sakea ez du ona egin» etab.

ZERBAIT / PIXKAT. «Erdarazko 'algo'k bi esan nahi

ditu: a. alguna cosa. b. un poco. Beraz, bitara adieraz liteke euskaraz: a. zerbait. b. pixkat». (Ondoren, aldrebeskeriak eta zuzenketak datoz...).

Liburu hau aztertzea benetan gustagarri zait eta neurez luze ihardungo nuke esaldiak arakatzen eta abar, baina oraingoz bego horretantxe.

Hizkuntzalariak eta, euren luma zorrotzez hurbilduko zaizkio, behar bada. Nik neuk, berriz, esker ona baizik ezin agertu jakintsu handi eta euskal idazle oparo aspergaitzari.

Luis Baraiazarra